

## 2020ko aurrekontu proposamena aurkeztu du Oñatiko Udal Gobernuak

*17,2 milioi euroko aurrekontu proposamena egin du Oñatiko Udal Gobernuak 2020rako. 2019ko zerbitzu guztiak mantenduta, 1,8 milioi euro izango dira inbertsioetarako*

Hilabeteetako lanketaren ostean, Udal Gobernuak 17,2 milioi euroko aurrekontu proposamena aurkeztu dio asteon oposizioari **-2019ko zerbitzu guztiak mantenduta, 1,8 milioi euro izango dira inbertsioetarako-**. Gogoratu, kiroldegiko obren inbertsioari aurre egiteko, udalbatzak 8,5 milioi euroko mailegua eskatzea adostu zuela irailean; 2020rako aurrekontuak murriztea dakar horrek. “Inbertsio garrantzitsu bat egitean gertatu ohi den moduan, datorren urterako aurrekontuak doitu behar izan ditugu. Beharrezkoa dugu arduraz jokatzeko. Finean, **dedikazio, kontraste eta lanketa sakonez eraikitako aurrekontuak ditugu**”, azaldu du Izaro Elorza Oñatiko alkateak.

Besteak beste, **segida emango zaio 2019ko partaidetzako aurrekontuetan finkaturiko inbertsio sortari**. Hain zuzen ere, 500.000 euroko partida dago bi urteko epean exekutatzeko. Bada, Oñatiko Udala hasia da prozesuan zehazturiko zenbait inbertsio egikaritzen –Olakuako kirol pistaren birgaitzea, besteak beste-. Eta 2020an exekutatuko dira herritarrek definituriko gainerako proiektuak. **“Herritarrek partaidetzako aurrekontuetan zehazturiko inbertsioak bi urtean egikaritzeko konpromisoa hartu genuen. Eta buru-belarri dihardugu horiekin”**, azaldu du Oñatiko alkateak.

Bestetik, **San Lorentzo eta Olakua auzoetako irisgarritasun planarekin jarraituko du** Oñatiko Udalak -150.000 euroko inbertsioa du aurreikusita-. Horrez gain, **oinezkoen segurtasuna bermatzeko neurriak** hartuko ditu, esaterako, Berezaora doan bidea egokituz -50.000 euroko partida dago zehazturik gisakoetarako-. Eta segida emango zaio **argiteria publikoan kontsumo gutxiko teknologia** duten LED argiztapena jartzeko apustuari -100.000 euroko partida dago horretarako-.

Gainera, landa auzoen alde egiten segituko du Udalak -120.000 euro bideratuko ditu horra-, eta **30.000 euroko partida definitu du landa-bideak konpontzeko**. Bestalde, Araozko Ostaturiko eta Natur Eskolako birgaitze lanak 2020an bukatzea aurreikusten du -170.000 euroko partida dago horretarako-. Eta **diru kopuru bat ere gorde da San Prudentzioko geltokian komuna jartzeko**. “Jakin badakigu Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun departamenduari dagokiola San Prudentzion komuna jartzea, baina, saiakerak saiakera, ez dugu erantzun baikorrik jaso. Arazoari irtenbidea eman beharrean gaude. Herritar askoren eskaera da”, argitu du Elorzak.

Horietan geratu barik, badira bestelako inbertsioak aurreikusirik: gizarte zerbitzuetako mapa, Azkoagain futbol zelaiko irisgarritasun plana, merkataritza biziberritzeko plan estrategikoa

amaitzea, Txaloka Ludotekako eraikinaren birgaitzea bukatzea, Unibertsitate Zaharrear helduendako Esperientzia Gela sortzeko proiektua...

Gauzak horrela, Elorza “pozik” azaldu da Udal Gobernuko kideekin batera landutako aurrekontu proposamenarekin: “Jakin bagenekien ardua handiz landu behar genuela aurrekontu proposamena. **Hilabeteetako lana izan da eta egindakoa oso emankorra izan delakoan nago.** Aurrekontuak doitu ditugun arren, 2019ko zerbitzuak mantendu ditugu eta alor guztietan ditugu inbertsio garrantzitsuak. Gainera, landutako aurrekontu proposamenarekin, **egoera onean gaude udalbatzak onartutako maileguari aurre egiteko**”.